

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

197n. zenbakia / bagilla
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**MAITXU ENTZUTETSUA!
OR IZENPETU ZAN
AMOREBIETA'KO ITUNA
ZURIEN ETA BALTZEN ARTEAN**

"OSCAR" SARIAK

Joan zan Epaillaren 27an. banandu ziran Laterri Batuetako Los Angeles uri ederrean "Oscari" deritzen sari ospetsuak. Eta. urtero jazoten dan lez, ikuskizun polit batez lagunduta. Danok dakigunez, Ipar-amerikarrak orrelako ekintzak egiteko daben trebetasuna, nabarmena da.

Ori dala-ta, ikusmen aundia sortuten da mundu osoko zinezaleen artean egun au urreratzen danean.

Baiña, zaletuen artean ez-eze. zine-inguruan dabilzaten artean be, beste orrenbeste jazoten dala esan daiteke. Zuzendariak, antzezleak edo-ta ekoizleak. "produktoreak", artegatsu. urduri. ikusten doguz egun berezi au noiz elduko zain. "Oscar orreitako bat eskuratzeak beste gauza batzuk ekarten dauzalako: ospe, entzute aundia edo dirua, esaterako. Arein balio edo kotizaziñoia bikoiztu egiten dala esan geinke "Oscar bat irabazi ezkeru.

NOIZTIK ETE DOGUZ SARI ONEIK?

Askok jakingo dozuenez. Hollywood-eko Zineko Erti eta Jakintzetako Akademiak emoten ditu "Oscar" oneik eta 1927garren urtean datza sari maitatu onein astapena. Urte orretan emon ziran lenengo sariak (zuzendaririk, antzezleri nagurisik eta pelikularik onenari dagokietanak, ain zuzen).

Arrezkeru. "Oscar" barriak sortu ziran. Esaterako, bigarren maillako antzezlariei, "sekundarioei" emoten jakezanak; edo ingles izkuntzan egiten ez diran pelikuleei emondakoak be.

Ortik aurrera, pelikula bat egiteko orduan zuzendari eta antzezlariez gain, zeregin ortan esku artzen daben beste batzuk be saritu gura izan dauz Akademiak. Abesti, gidoi, soñu edo jantzirik onenen egilleak, adibidez. Orrela ikusten dogu aurtengo ekitaldian, ogei saritik gora banandu dirala. Ez da gauza makala, gero.

Gorago aitatu dogu Hollywood-eko Akademiak emoten ditula sari oneik. Eta Hollywood aitatzeagaz batera, milla irudi, milla aurpegi, milla gogorapen datorkiguz burura. Izen ori daroien estudioetan ainbat pelikula ospetsu egin diralako, ainbat antzezleri eta zuzendari ezagun eta aztueziñ egin diralako berari esker.

Nork ez dauz gogoratzen Clark Gable, Gary Cooper, John Wayne. Burt Lancaster, Bette Davis, Robert Mitchum. Ava Gardner, Marilyn Monroe, Cary Grant, Audrey Hepburn eta beste askoren izenak? Danon gogoan dirau.

Hollywood dan urian egin da aurtengo ekitaldia. Shrine Auditorium dalakoa izan da jai-lekua. Jende ugari batu zan bertan. Batzuk. ekitaldia lasai-lasai ikusteko asmoz. beste batzuk. ostera, "Oscar" bat lortzeko itxaropenaz.

Beste urteetan lez, aurten be. pelikula eta antzezleri batzuk agertzen ziran "Oscar" bat irabazteko albiderik geieenez. Lenengoen artean. bi aitatu bear, bereziki: "Forrest

Gump" eta "Pulp Fiction", alegia. Antzezlariei dagokietanez, beste bi be: Tom Hanks eta John Travolta.

Azkenean, etzan ustebakorik izan eta guztiak beteaz, "Forrest Gump" izan zan garaille nagusia sei "Oscar" irabazi ebazalarik. Euren artean, saririk garrantzitusuenak: pelikularik onenari, antzezlaririk onenari (Tom Hanks) eta zuzendaririk onenari (Robert Zemekis).

"Pulp Fiction"-ek, ostera, izendapen ugari euki arren, "Oscar" bat baiño ez eban lortu; jatorrizko gidoirik onenagaitik, alegia.

Gaiñontzeko sarietan, emakumezkoen maillan, Jessica Langek lortu eban bat antzezleri nagusirik onena lez; Martin Landauk beste bat bigarren maillako antzezlaririk onena bezela, edo Elton Hohn eta Tim Ricek lorturikoa abestirik onenagaitik, besteak beste.

"Oscar" berezi batzuk be emon ziran. Quincy Jones-i bere giza-aldezko lanagaitik; Antonioni italar zuzendariari bere bizitzan zear zine-arloan egindako lanagaitik eta, azkenik, Clint Eatwood-i pelikulen ekoizpenean, produkziñoan bere lan sortzailleagaitik.

Aitamen berezi bat merezi dau, baita, Tom Hanks antzezleri bikaiñak. Lengo urtean, "Philadelphia" pelikulan egindako lan ederragaitik "Oscar" bat lortu ondoren. aurten, beste bat bereganatu dau "Forrest Gump"-eri esker; era orretan bere mailla aundia baieztatu daua. Orrez gain, Spencer Tracy-gaz batera dogu urte bi jarraikocotan, "Oscar" saria lortzen dauan antzezleri bakarra; gizonezkoetan, beintzat.

Azkenez, aurpegi alaitsu eta illunak ikusi eitekezan jai amaitukeran. Baiña, aldezturirik itxaroten zana bete egin zala esan bear, batez be, saririk garrantzitsuenai dagokietanez.

Eun urte beteten dira, aurton, lenengo pelikula egin zanetik. Ordutik ona, gauza asko aldatu egin dira. Baliabide obeak asmatu dira, aurrerapen izugarriak jazo be bai. Danak lagundu dautsoe zineari aurrera egiten. Guk geuk be jarraituko dogu amets eta ilusiño barriak egiten. Azken baten, orixe dalako, izan be, zinearen elburuetariko bat, "Oscar" sari banaketaren jaijan agirian geratu dan lez.

**1995ngo Jorrraillaren 20an.
MALAX-ETXEBARRIA'TAR YON.**



ITXAROPENARI LEIO BAT

(UDAL - AUTESKUNDEA)

ERASOTEN?

Lerro onek irakurtzen dozuzanerako, irakurle, udaletarako alkate eta zinegotzi barriak (edo ez ain barriak, ainbatek barriro ere leengo lekuetan jezarteko asmoa dauke eta) aukeratuta egongo dira, baina irarkolaren gauzak eta betebeharrak direla eta, idazten dodan une onetan botoak eskatzeko epea asi baino ez da egin.

Bueno, egia esateko bada denporalditxo bat politikariak alkarren kontra kristorenak eta bi esaten asi direla (ori "campana electoral" ei da), baina orma-irudi, abestitxo, gutun eta abarreko guztiak astekotan dagoz.

Beraz, bake-une bako gudua asita dago. Guda berezia: gatazketan norberaren nagusitasuna agertu bearrean besteen aultasun edo makaltasuna azaldu bear ei da, norberaren gaitasun eta asmoak plazaratu ordez besteen akats eta utsak agertu. Futboleko presatzaile batzuk esaten dabenaren antzera politika munduan ere "defentsarik onena eraso da".

LEN ETA ORAIN

Leen zure pentsakeragaz bat etorren alderdiari emoten zeontson botoa, edo beintzat onena zeritxonari edo gauzarik geien egingo ebazala esaten ebanari.

Patxikok agur esan euskunean ia guztiok jarri genduzan itxaropen asko gaur eguneko sistema politikoan. Gauzak asko aldatuko zirelakoan gengoan.

Orduantxe bertan, susmo txarrak ere artu genduzan sekula ezertan agertu bakoak ikurrina eskuetan artu ebenean edo barruko alkondarea aldatu barik beste kolore bateko jake bategaz agertu zirenekaz.

Abertzale barik, "a-ver-que-te-sale"-ak udabarriko txibiritak bezain ugari agertu ziran Euzkadiko zelaietan.

GARBI ALA USTEL?

Denporeak baiezatu dauanaez, orregaitik edo agaitik politika mundua ez da itxaroten zan besteko garbia izan: alderdikeriak, ustelkeriak, iruzurrak... danatarikoa egon da.

Ia alderdi bat ere ez da gelditu alakorik gabe, danak euki dabe zeozer.

Dana dala. ezin dogu pertsona hatzuren erruz alderdi oso bat epaitu eta ondatu. naiz eta gaizkilea alderdiaren burua izan.

Alderdietako buruak, buru dira. besterik ez, eta izan ere gitxi dira beste bazkideen kopuruaz konparatu ezker.

Baina askotan aipatzen danez eurek dauken garrantzia botoak erakartzeko orduan dala eta, futbolean antzera "fitxajeak" egiten dira.

Or lekuko Garzon epailearen kasua, naiz eta onetan, futbolaren antzekotasunekaz jarraituz, jokalaria porrot egin eta gaur egun beste taldearen alde jolasten dagoala salatu bere "entrenatzaile" izandakoak. Ostera, badirudi Belloch epailearen "fitxajeak" obeto urten deusola.

BURU DIRANAK

Batzuren esanetan alderdi buruen itxurak ere ez esan aundia ei dauka botoak lortzerakoan.

Ori ere ez dot uste egi borobila danik, osterantzean bereala ipiniko leukie kataluinarrak Jordi Pujolen ordez Bertin Osborne (altuagoa, gazteagoa, sendoagoa... berba baten itxura obekoa).

Gonzalez-ek ere laster jarriko leuke Nonna Duval Belloch-ene ordez eta nork daki barruko arazoetako ministeritzak egur gitxiago jasoko leukean eta bereala ez litzatekezan konponduko Gal, Filesa, Roldan eta ainbeste askatu ezineko troinu eta korapiloak. Batek daki!

ASMOAK ETA EGITEAK

Bromak broma eta kontuak kontu. Itxura onak ez dauka zereginik atzetik eginkizun eta asmo sendo eta itxaropentsuak ez badagoz.

Eta orrexek dira nik faltan botazen dodazanak. Joko demokratikoan asi ginanean, gorago aipatu dodanez, botoa zeure pentsakerara geien urbiltzen zan alderdiari emoten zeontson botoa, edo bestela ideia eta asmo onenak agertzen ebazanari.

Baina gaur ez daukazu, irakurle, botoa txarren arteko onenari emon deutsozunaren ustea? Au da, itsuen artean begibakarra aukeratu dozunaren zera?

Badakit askok, buruaz baino, biotzez emoten dabela (edo dogula) botoa. baina une batean alkarrerri zelangoak esaten deutsezan entzunda, badago onik?

**

EZAGUNAGOAK

Udaletxeko partaideak izanik aukeratu direnak, urbilago bizi izan doguz auteskunde oneek, batez ere erri txikietako biztanleak, azken batean oraingoan ezagun bat jarri dogulako arduraleku batean, eta ez argazki eta telebistaren bitartez baino ezagutzen ez dogun bat. Orregegaitik, bearbada, besteekin konparatuz, zerbait desbardinak izan dira, baina alde aundi barik.

Aukera ona egin badogu, on egin deigula, eta txarra izan bada lau urte daukaguz damutzeko. Zorionak zein zoritxarrak kasu onetan lau urteko iraupena izango dau.

ENRIQUE ITXASALDE

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ

BIZKARREKO MINA

Bizkarreko miña danentzako oiñazea da: iñor ez du enda, sineskera, margo, seksu edo kuntse zioengatik kanpoan uzten. Goi-arnaskera arazoetatik urrena, sendagillearengana joateko arrazoirik zabalduena duzute.

Jenderik geienak bere bizitzan zear bizkarreko min ezin ntzailleren bat jasaten du. Eta gaiñera gu arrapatzera berriro itzul daiteke. Gu eraso eta gero, berresetsi edo berreraso berri baten aukera euneko irurogeikoa dugu.

Buruaste au adiñarekin gertatzen diran aldaketetatik sortu daitekean arren, bizkarreko miña ez da alabearra. Maiz, zu zerori zereganatzen joaten zera. Soin-ariketa larrigik, zein batere ez egiteak garrantzi aundia dute. Ariketa geiegik zein gutxiegi, geiegizko aalegiñak egiteak, eta larregizko azta edo pisuak beren eragiña izan dezakate. Mindutako bizkarra geiegikeriekin lotuta dago, alegia.

NOLA MIN EMATEN DUAN

Bizkarreko oiñazea min arin batetik il-zori lotzaille bateraiñokoa daiteke. Toki ttiki baten bilduta dagoke, edo-ta lekune zabalean eda egin leteke, bizkarra zearkatuz naiz anka-aurrekalderatuz, batzutan oiñeraiño iritxiz. Gienetan, beelkaldeko bizkarraldea, gerrontzeko tokia (lumbar) jotzen du. Beste itu batzu lepo-ingurua ta, gutxiagotan, erdi edo goiko uneko bizkarra dira.

Miña beste ezaugarri batzuekin batera ere datorke, motelkeria ta giar-aulekriarekin esate baterako. Zergatiak ezaugarri edo sintomak bezain aldakorrak daitezke: giar-, izulta (ligamentu) zein txirinbol-arazoak (problemas de disco), beazun-xixku ta giltzurdin-zoldra (inekzioak), barreneko gorpuzkien anpadura edo tumoreak, naiz bizi-zemaigarriko konkortzeak (protuberantziak) aorta-orman, gorputzeko zaingorri edo arteririk aundiena.

Aukera guzti oiek dirala-ta, Laterri Alkartuetako (USA) Elikadura- ta Sendagai- Arduralaritzak bizkarreko miñarekin kontuz aritzeko aolkua damaigu. Gaixotasun ori jasaten duten orok sendagille baten-gana urreratu bear lukete, tratamendu edo jardunki-

zun-egitamu batean sartu aurretik", dio egikaratzaille-etxeak (agentziak).

Osagille asko aolku orrekin bat dator. Eta bizkarreko arazoetan jakitunek zera sendesten dute, batzutan sendagilleari berealaxe otsegitea dala onena. Baiña, jakitunek diotenez, gaitz bat bai dala izan ere. Auxe jakiñarazten digute: bizkarreko miñik geienak kiri-ez edo orden-ez larrietatik ez, giar-tenkaldi (tension) ta nekedura arrunt, ariketa egokirik ez egiteagatik eta abarretik datozela baiña.

Osalariagana oe-atseden eta min-aringarri erreze-ta jasotzera errenka joan bearrean, askotan obe dezu oera joatea ta kitu. Geienetan, miña egun batzu barru baretuko da aspirina batzu ta oeango atsedena artuz.

Iñoiz iñois garrantzi ttikiko ala larriak izan daitezkean bizkarreko miñak berexitzea zailla izan leiteke. Usu badira eritzi egokia ematen lagundu dezai-zuketen ezaugarriak, bizkarrak nola lan egiten duan, zerk egin dezakean uts, eta ondo ulertu ezkeru, ori konpontzeko dagikezuna.

EGITURA-ARAZOA

Bere izenari aitziz, bizkar-ezurra ez da ezur bakarra, alkar-lotutako orno batzuek osaturiko abea baizik. Beraz, badu malgutasun eta indarririk, auek bizkarraren eginkizun egokirako guztiz bearrezko diralarik. Zure bizkar- eta lepo-giarrekin bat, bizkarrezurrak buruari zut eutsiarazten dio, bizkarrezur-soka babestu, or etzan-arazi, okertu, ta edonora kuzkurtzen dala uzten du, ta beso ta zankoentzat erre oiñarrizko bada.

Erabilkera guzti auek asetzeko, bizkar-egiturak zabala izan bear naitaez. Bere muiñak, bizkarrezurrak, aldundutak ogeitalau ezur ditu, "pelbis" eta garaezurra (kaskaezurra) bitarte. Orno bakoitzak adardun bilgo baten tankera du, bizkarrezur-ska inguratzen dutelarik. Adarketa-antzeko proyektio batzuek ere izuta (ligamento) ta zurda (tendón) ioietarako ainkura (ancla) puntutzat ere balio dute. Beste batzuek ornoerak beeko zein goiko moduan topatzen dituzte: "fazeta-alkartunak" sortzeko, ornoei batak bestearen aurrean bira emateko aalmena ematen die-

na. Ornoen gorputza lika edo goma-alkartuneak aldutzen dute, xirinbolek igidura-kopuru murrizta onartzen dute. Bizkarrezurra orrelakoxe malgua bi ornoren arteko igidura ttikiek zentzua dutelako da.

Aieka edo alderdi batetik begiraturaz, bizkarrezurra "S" izki luzatu bat dirudi. Biurgune onek burua, bularra, ta bata bestearen gaiñetik erdiratua eusten ditu ta bizkarrean geiegizko atezu edo erstura geitu lezatekean zabuak gutxiagotzen laguntzen die.

Baiña bizkarraren egitra biakar-ezurretik asten da. Ortik, bizkarrezur-sokatik luzatzen duran kirioak orno baktzaren atzetiko utsune ttikien bidez gaiñontzeko gorputz-ataletara irteten dira. Itsutek ornoak bata bestearekin lotzen dituzte, eta giar-zurda –loturera ornoz-orno pelbis, saiets, sorbalda-xaflatik, beso ta garezurra igarotzen da. Beraz, zailtasunak artean, beren jatorria ezagutidetzea (identificar) zaila naiz guztiz eziñezkoa izan daiteke.

ZER IBILLI LEITEKEAN OKER

Bat-bateko miña gertatzen danean, jendeak zirinbol-askatzea (dislokatzea) dan susmo txarra artzen du. Dana dala. bizkarreko-min –arazorik geienak ez dira xirinbol-arazoez sorturikoak. Askoz ere maizago. erruna gia edo izuta akidura (agotamiento de ligamento) izaten da, edo-ta "fazeta-alkartuneen" zeetze edo geiegizko nekadura. Eta, sarritxo, buruzein gorputz– larrialdia eta jardunketa egokien ezak ere garrantzirik badute.

buruko-stressak bizkarreko miña sortzen du, giar-tenkada (batzutan giar-karranpak) ere jaiotarazten bai-ditu. Ariketa-ezak giarrak aultzen ditu, bizkarreango soin aztaren tira egiteari aurka egiteko edo mekanika-stressa (igi-izti larrialdia) okertzeko ta makurtzeko aulago egiten ditularik.

Egiñaal arin batek ere bere eragiña izan lezake tira egindako giar edo akitutako iztuan.

Ariketa geiegi egitea, gutxiegi naiz batere ez egitea bezain txarra izan daiteke, larregizko-egiñaaletatiko zauriak sorrerazi ditzakealarik. Oizkoan, lorturiko miña giar zein izuta baten okertze edo-ta akiduratik datorke, bai giar-karranpetatik ere. Geiegizko jardunketak ere "fazeta-alkartuneak" zauritu aal ditu, antzekoxe miña sortuz. Au dala-ta, lorategia luzaroe-gi atxurtu edo tennis larregi jolastuz, lurretik izparringia bildu ezin duan bizilagun geldo ta geldizale baten bizkarreko min garrantz berekin ibilli zaiteke.

Geiegizko azta (pisu) larregiñaala (sobreesfuerzo)

bezain arazotsu ta kaltegarrikoa daiteke. Sabeltzar- rarak soin-erditunea bizkar-zurretik bizkar-ezur-oreka urruntzen du. Orrek giarrei ta izutei akidura geitzen die. Ori dala-ta sendagilleek gaixoei diñotsien leen- biziko gauzetariko, larregizko azta galdu dezatela duzute.

Istripuetango austura larriez kanpo, beste bizkar- rreko miñaren zergati geientxoena, adiñagaz bizkar-egitura aldatzen den erari lotuak daude.

TXIKITUZ DOAN BIZKARREZURRA

Bizkarreko ezurrak eldutako beren aziera edo tamaiña gizaki baten leenbiziko ogeitaka urteetan iristen dira. Gero, urteen joanean, bizkar- ezurrak lotutako beeratze mantzarra asten du. Xirinbolak, jaiotzan %90 ur ziralarik, pixkanaka legortzen asi ta meetu egiten dira (orra notintzak zaartu-aala goibea galtzen duan ziorik garrantzitsuenetakoa). Era berean, xirinbolen kanpo-gezura gogorak maskaltzen asten dira.

Zeetze edo maskaltzea. argia ba'da, txirinbolaren gunik leunena, ornoen tartetik konkortu egin leiteke. Orain gi-etenak jotako txirinbola izango da (disco herniado). Konkortzeak bi ornoren tartetik irteten dan bizkarrezur-kirioaren bat zanpatzen ba'du, min garratza ta astuna sorrerazi dezake.

Kirio-eragile (nervio motor) bat ikutzean, gian-aren eginkizuna ere mindua gerta daiteke, auleria ta zeetze edo garatze-ezara (atrofia) eragiñez. Erstura zentzumen-kirio baten baldin ba'da, eragiña txontxontzea (entumecimiento) zein miña izan daiteke. Txontxon- tzeak eta miñak ikututako kirioaren bidea jarraitza jotzen dute. Kirio ziatikotikako zapaketa aretatiko miñak iztar, belaun edo-ta oiñetan egoneza ta erosota- sunik-eza sortu ditzake. Gi-etendako txirinbol askok ordea ez du buruausterik sortzen, baiña. Beren mukuluek ez dute-edo kirio-zutza batean zapaltzen.

Miña bai txirinboletik, bai tenkalditik sortu, lepoa ta beekaldeko bizkarrak errazago jasaten dute eragi- ña, saiets bez betetako bular-alde zurrinak baiña. Bee- bzkarraldea bereziki mingarria izaki, idunak edo samak soin-azta geiengo errotan baitu, ta ain aixa okertzeko egiñik ez dago.

ZAARTU-ALA

Artaiñeko adiñaz gero .beste arazo batzu sortu

aitezke. Giarrak eta izutak gero ta lasagotuz dabilta, bizkar-egonkortasuna jeitsi egiten dalaril. Txunkuetatiko neke ta igatzeak igidura eragotzi edo-ta kirio-zuztarra zanpatzen duten ostopoak sortu, ta zubi ezurtsuak ateratzea beartu lezateke.

Eta ezur-maetzea (osteoporosis) dalakoak ere bere kaltea eragiten du, menopausia jasandako emakumeetan batik-bat. Txukuntasunik-ez onetatik bizkarraren ain xulotsu (poroso) bihurturik, fazeta-txunkuak autsi egiten dira ta ornoek, gutxieneko larritze-tik (trauma) naiz gorputzaren azta arruntaren ersturagatik, austurak jasaten dituzte.

Geienetan, ala ere, lanetik kanpo jar gaitzakean bizkarreko miñak etorki bakuntxeagoa izango du (tenkaldia, akidura, etabar). bizkarraren beekaldeko miña arruntagoa duzute, ta sarri ez zuk ez-eta sendagilleak, zeatz-meatz zer egiturari ukitzen dion ezin jakingo dezute: garrantzirik ere e zdu idukiko, bizkar-ezurreko miñaren zio askorentzako tratamendu egokia berdintsua baita.

ZER EGIN DEZAKEZUN

Demagun bat-bateko min okertzaille au bizkarreko min arrunta besterik ez dala. Berriro osatu edo sendatzeko egokiera aundia badala da kontutan artu bearreko lenen gauza, sendagillearengana jo ala ez. Biakarraren beekaldeko arozaetatik %70 iru aste edo gutxiagotan konpontzen dira, osagillearen laguntzarik gabe. %90 bi illabete barru obetuko dira, iñolako laguntzarik bage.

Osalariagana jo ezkeru, segur aski aspirina artu edo oera joateko esango dizu. Babesgarri obe moduan, koltxoi irmoren bat erabilli edo-ta oe-ool bat koltxoi bigun eta oe-ezur artean ezer dezazula aolkatuko zaitu. Zere kasa damakezu urrats auetako edozein.

Eskola Zaarreko sendagilleek min-artutako lekuenari beroa damaiozula jaulkiko dizute: bustialdi beroak, ur beroko bonbillak (botillak)... Baiña azken-ikerketek darakuskigutenez, bero leunttoak tenk-egindako giarrak eta giar-karranpak lasaitu ba'ditzake ere, larregizko beroak karranpak okerragotu egin ditzake; erredurak ere sortarazi deizke. Zorro otzak obeak izaki, arazo oiek ekidin (bartzatu) eta miña eraginkorragoki baretu egiten bai-dute. Linimentu ta igeltsoak ez laguntzeaz gain, gaiki berogarri batekin batera erredura sortu lezake.

Oean atsedanak artzea ona da, baiña oean zenbat

denbora igaro bear dan zaztu bage. Osagilleek bi asteko oe-atsedena segidan artzeko aolkua eman oi zuten, ala ta guztiz berandueneko ikerketek argitzen dutenez, bi egunek eragin berbera daukake. Belau-nak tolestuta idukitzeak beekaldeko bizkar-ezur-giarrak lasaitzen laguntzen du.

Larrialdietarako sendagille batek alaxe zioan: oetik jaiki zaitekeanean, nai-ta bizkar-ezurrak min zerbaitto eman, jaiki egin bear zenuke. Oean luza-roago egoteak ez du ontzea ariñagotzen. Esertzeak, minutuko bizkarrean, ibiltzeak baiño estualdi geiago sortzen ditu. Egoera irmo batean egoteak bizkarreko miña areagotzen du.

Ariketa egokiak bizkar-ezurra osasuntsua izan daitean naitaezkoak dituzu. Biakarreko miña galera-zi ta ondutzean lagundu dezaizuke. Baiña bizkarreko miña baretu dadin arte, ez ariketekin asi; azkarre-gi asteak miña okerragotu egin lezake. Denbora egokian asirik, miñari birsortzea zaillagotu egiten dio.

SENDAGILLEARENGANA NOIZ JO

Batzuetan oiñazea ez da gelditzen. Badirudi oean-go atsedanak baiezko eragiñik ez duala-edo. Noiz bear duzuke sendagillearen laguntza? Onoko ezau-garri edo sintomek miña larrixkoa dala ta osagille baten urgazpen (laguntza) bearrean zerala adierazten dute:

—Astebete edo bi aste dirauan edo-ta oe-atsedena artuta ere okerragotu egiten dan miña sumatzean. Oe-atsedenak okertze edo zantiratu arrunta astebete barru edo egun bakar batzutan baretu-arazi egin bear luke.

—Esna-arazi edo ta jardutea galarazten dizun miña. Min itu ta usuak giar edo izuta-arazoa baiño zerbait geiago adierazten du.

—Egokera aldatuta baretzen ez dan miña. Bizkarreko min geientxoena baretu egiten dira egokera aldatu-aala, ta etzatean ere errazago.

—Zankoa botatzean dizun miña. Gi-eteniko txirinbol bat-edo daiteke.

—Anka zein oiñaren auleria; ta are ta argiroago, xaki (vesicula) edo este-betekizunaren gaiñeko eramanbide edo kontrol-eza. Ikur auek gi-etendako txirinbol, ezur-mutur (espolón), zein tokor (tumor) batek kirio-zuztarren bat naiz bizkar-ezur-soka zanza ditzakeala aditzera eman dezake.

—Gorputz-larritze (trauma psiquico fisico) bati lotutako miña, berebil-zauria bezalakoxea. Austura batetik erator daiteke miña.

– Sukar, goragalea, gernu-larritze edo auleri ta izarditze orokorre loturiko miña. Sintoma auk zol-dra (infekzio) ala beste ebazkizun larriak adierazi ditzateke.

Aurrean aitaturako ezaugarriak ba'duzu, sendagi-llarengana jo ezazu. Oietako bat ez ba'dadi ere, ez du esan nai zeretik edo zere kasa sendatu bear duzu-nik. Osagille baten laguntza egokia da, bakar-bakarrik miñarengatik kezkatuta egon arren. Bearrezko da osalariarengana jotzea miña gizaki adintsu zein aur batengan gertatuko ba'ledi. Notin zaarretan, bizkarrezur arrunta baiño zerbait geiago izan liteke. Aurreiu dagozkionetan, biakarrezurreko miña naikoa ezoizkoa izaten da ta orrek azterketa merezi du.

SENDAGILLEAK ZER EGITEN DUAN

Egin bearreko lenen-lenengo gauza, zere miñaren goitik-beeraiñoeko zeaztatze bat artzea izango du. Non eta noiz miña duzun, zerk asirazi zion... Noiz ez du miñik ematen, eta zerk obetu ala okerrera zten bio? Berrero sortzen al da? Aurretik iñoiz aztertu al didate...?

Daitezkean beste min-iturburuak aurkitu aal izateko, iragandako mediku-edesti edo kondairari buruz ere galdegingo dizu.

Urrena soin-azterketa dator, zure egokera-azterketak, igidura-aalmena, azal-oarketa ta oarmena barru daudelarik. Azterkun auk kirio bat zauritu edo-ta bere eginkizuna oztopatua gertatzen dan agertu lezaiguteke. Beste aukera batzu ere igarri ditzateke, ala nola autsitako fazeta-txunkuak edo artritiku ezur-muturrak.

Zuk egindako leenbiziko ikerketan, agian sendagilleak ez du oituzko aztekun ori baiño egingo. Zure ezaugarriak arruntatzat jo ditzake ta tratamendua oizkoa izan daiteke: leenik eta bein, oeano atsedena ta apike min-lasaigarriak eta otzgarri zenbait.

Batzuren batzuk giar-lasaigarri ta arrotze-aurkako (antiinflamatorias) sendaki batzu geitzen dituzte; beste batzuek ordea, auk ekidin egiten ditue.

Zere lenen ikertaldia ikustaldi bakarria izanen da. Ala ere, oizko neurri ta bideek lagundu ezean, osagilleak X-izpi edo urrunago aztertzeko beste neurri batzu artu ditzake.

Azterral-di oiek konputarizatutako tomografi bat zein arazoa ezagutidetzeko beste senda-irudi batzu ukan lezateke.

Magnetiku-durundi (resonancia)-irudiketa edo

MRI dalakoa aukeratu lezateke, agian, izuta ata txirnbolak bezalako eunak betiko X-izpiek edo-ta CT scan'ek baiño dintasun eta xeetasun geiagorekin erakutsi ditzaketenak.

MRI gienetan CT scan'a baiño garestiagoo da, baiña gaixoak ez ditu X-izpietara azalarazten eta teknologia zabaldu-aala beren salneurria jaitsi egin leiteke. Zenbait sendagillek dioanez, ematen dituzten xeetasun zeatzek gogorrenzako diagnosi-aukera-erreminta biurtuko dute.

ZIRUGIAREN TXANDA

Azterral-di auk erakutsitakoak tratamenduko urren-go urratsa zeazten laguntzen du. Sarri fisioterapia izanen da, ala nola masajeak, karriatze edo trakzioa, eta soiñuz-arunzko (ultrasonido) erabillerak. Zirugia gaixoetatiko euneko ttiki bati dagokio: ots, X-izpi edo-ta MRIei ikur ez-arruntak erakutsi ta oizko terapia edo sendabidez ezin jardun diranak eta kirio-kalte larriak azalerazten dituzten oiek.

Urte exkax batzu badirala, oziko zirugiari bestelako bide (alternativa) ontsua arkitu zioten, Chemonucleolysis izena zuana ain zuzen ere: gi-etendako xirinbolei papayetatik ateratako enzima batzu txertatzean datza, ta bai sukaldetan erabilli ere enzima, chymopapaina aragi-beratzaille do biguntzaille legez, aragi-ornoko protein sendo batzu urtu lezake-ta.

Bere elburua lortu, iritsi ezkeru, oizko zirugiari gabe gi-eten baten miña lasaierazi egin dezake. Baiña kontuz, bizia galduarazi lezaketen alergi-erasoak sortarazi lezake txerto auk. Orren giñoa txerto auk artzen dituzten 100%ko gaixo bakoitzaganakoa duzute, ta, gutxiagotan, geldieria edo paralysisa dakarkete: gaur-egin, gutxitan erabillitakoa.

Zirugi-sendagille geientxoenek erabateko zirugia naiago dute, batez ere gaixoei larritze ta txauketa edo kastu urriago dakarzkieten mikrosurgical-tekniken sorrera dala-ta.

Bizkarreko gaixo batzuentzat, zirugia azkenengo ezkuarte edo baliabide bezala geratzen da. Geientxo-entzat, ala ta guztiz ere, preskripziorik aolkagarrienak egonarrria, neurri bakunak, eta iñarkun edo ariketetan etengabe jarduteko naia dira. Azken batean, zere bizkar-ezuraren osasuna, sendagillerik onenen mende baiño, zere mende dago.

Itzulpena: Etxaburua'tar Asier'ek

LAUAXETA'REN AZKEN IDAZKIAK (II)

I

Goiz eder onetan erail bear nabe
Txindoi baten txindak gozotan nabela.
El naiten leyora begiok itz gabe
Gorbei barna yatorr kañoi ots-itzela
or egazkin-egak odei-lapur doaz.
Guda-gotzon baltzak odolez dakustaz
euren oin aurrian beredin gudari.
Gazte argi orreik eutsi lur amari
Bera bezin onik eztauko ludiak.

II

Baña Jaun altsua orain ken nai nozu?
Bildots baten antzera lotuta naukozu
bearren nauenean neure aberriak?
Orain deia datsut arnas-ots barrian;
Mendi goitietan eriotz betorkit
bertan eder dora azkenengo atsak.
Ortze adartsua babes-toki bekit
neure gerri meian eriotz zauria
txastau dagiantzat etsaien iraiñak.

III

Zuzentzaren alde bil diran zuzenekin (?)
ixuri daidala bizitz-iturria
Lurra estal bedi odol-larrosakin
Gozo ta eder gizonen kojetan (?)
Aberri obazko (?) eriotz-mosua.
Zauritu orreik zut ora mendietan
Aintzak zabal ditu esku argituak.
Ortze jausi nedin... Eta azken orduan
laztandu naizela arnasa estuan.

IV

Garaitz adar billa doazen zaldiak
Eta begi orre in laño leyartuan
tinki igaro bitez gizurren argiak;
esku zurbil oneik aul luzatu bediz
euki dagientzat ikurrin donea.

O askatasun atsak betiko bil zagiz.
Ortze makur zaite, oi, buru neurea (?)
geure lur amaren bezarte gozoan.
Eta anai maiteok eutsi lur amari
itxaropen auxe sort bekit gogoan.

V

Jauna, eriotz au arren emostazu
koldarrentzat itxi larrosen usaña.
Askatasun deuna bial egiztazu
atzindu nai dot ba, arrotzen iraña.
Gorputz onek bakez atsedean dagian
erri askatuen egun aundi arte.
Oroigailuaren maitasun itzala
Kisto'ren, Beragan ditxarot.
Josu'ren fedea besterik eztaukot.
Erri zintzo onenak zaindu dagiala
il gintzanen atsa, il gintzanen aala.

VI

Eta bake donea sortuko danean
neure azur utsak besteenakin batu;
Eresi gurenaz lagundu bidean
obi bakar arte. Baña arren bukatu.

(Lauaxeta)

8) Gaztea nozu bizitz onetan
ta ez jatan faltau gauzarik,
Jauna gogora aldi onetan
iges eitzia lurretik.

9) Ezpedi egin neure oldea,
zeure naia, bai, ostera,
Gogoa biyoa zeru argira,
gorputza lur illunera.

(Lauaxeta)

BIOTZ DONEA

Biotz xamur-beroa
gar-gori betekin zauritzen nozu,
zeuri gaiñean, ordea,
maitasun-larrosa zabaltzen dozu.
Sakon bitan nabil ez bai goxo:
Otzak il naroa zugandik urrun,
su gordiñak nauka zeure ondoan;
Gabaz argi zakusat,
egunez barriz illun.
Zeurekin naukazu, neugaz ez zaukat,
eguzkitan edur, otzetan sugar,
jolaz bikoitz onek galduta nakar
baiña bien tartean
sugar zakit, Jauna, biotz barnean.

(Lauaxeta)


IÑAKI GARAMENDI BARRAINKUA

Neure Iñaki maitea: Ordu gitxi barru su-izkillutua izango naz. Pozik ilten naz, neure ondoan Jesus eta iñoz baño geiago euskaldunen aberri bakarra. Ona ziñalako aita baten biguntasunaz maite izan zaitudan Iñaki. Esteban gogoratzen dozunean, asko maitatu egizu Kristo. Garbia ta lizungabea izan zaite eta maitatu egizu Euzkadi gurasoak maite dozuzan lez.

Egiozu ikustaldi bat nire ama errukarriari eta beko-
kian mosua emon egiozu. Agur. Zerura arte. Bein eta
milla bider bedeinkatzen zaitu: Esteban'ek.

(Lauaxeta)

(Olazar'tar Martin'ek euskeratua)

Eskutitz onen atzean eta izki ezbardeñez auxe diño:

Jose Urigoiti Etxeta

Cecilia Aginaco

Laguardia

Erditze-Irakaslea (Osagille-laguna) Araba.

Zure buztarria baiño ezer sendoagorik nigan ba'dago,
zure asarrea aintzat artzen ez dakian zerbait,
eta, borrerua, makalai ezartzen dautsezun
bildurra lotu ezin dauan zerbait,
Jo! zure txibita errukibakoagaz,
makal bear ba'da min otzaren aurrean,
gorputz iguingarria makaldu leiteke,
baiña ez iñoz nire burutasuna...!

Sendoago, arroago jasoko da,
miñaren joteak bere ertzak agertuko dauz:
burutasuna arrano garaitzaillea da,
aize aundiak egoak joten dautsazanean.

Ez daust ardura... zure asarrea idargea da,
atsegiñaren menpeko, egun bateko jauna;
zure aurrean guztiak buru-makur ba'dira be,
nik arro jasoten dot neure bekokia.

(Lauaxeta)

(Olazar'tar Martin'ek euskeratua)

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

ALKANDORARIK EZ...

(3n. SARIA)

ABERATS BAT

Izan omen zan lurralde batean, errege bat oso aberatsa. Berak ere etzekien zenbat ondasunen jabe zen. Jauregi, etxe dotore, baratz eder, jolas-toki, bitxi apain, diru... Zertatik etzuen?

Jan-edana berriz. zer jarri aukeratu eziñik, ibilli oi ziran aren sukaldariak, berantzat otorduak antolatzerakuan.

Txepetxaren muñekin egindako arrautsopilla ere gertatu izan omen zuten iñoiz. Ura lana sukaldariena!

Eta edariak? Nolakoak? Ni ez naiz gai danak emen izentatu ta zenbatzeko. Obe det lan au beste idazle trebeago baten eskuetan utzi.

Jaun onen ondasun eta aberatstasunak Salomon'enekin bakarrik berdintzekoak omen ziran. Eta badakizue Salomon au munduan izan dan bakaldunik aberatsena izan zala. Orra!

JOLASAK

Eta... Nola ukatu bere buruari oparotasun onek eskeintzen zion neurrian hizitzea?

Orregatik, otordu bikañak, jolasaldiak, dantzaldi, eize-saio eta abar da abar...

Ori zan bere ia aguneroko egitaraua.

Morro! ta mirabeak berriz beti gertu, lan ontan erregeari laguntzeko. izan ere au orrela zebillen bitartean. eurak ere ondo zurrupatzen baitzuten aren otordu, jolas eta atseginbide guztietatik.

**

MAKAL

Bañan orra gizonaren usteak nola ustel urtetzen duten sarri!

Gutxien uste zutenean. erregearen kopeta. illuntzen asi zan, jateko gogua gutxitzen, jolas eta atseginetarako irrika moteltzen, ihillietarako zaletasuna makaltzen. jantzi eta apaiñkeriak, gero ta gutxiago maitatzen.

Erabat kezkatu, onela zioten bere aide ta lagunak: Zer gertatzen ote zaio gure nagusiari? Iñolaz ere, ez dago batere ondo, sendagillea zuzpertz berra daukagu.

Onela egin zuten, bereala.

Eta gai ontan gizon jakintsu eta ikasiak, inguru guztietatik deitu ondoren, iñork ezin izan zuan erregearen gaitza asmatu. Danak porrot.

Erregea gero ta makalago. gero ta illunago. Zer egiñ une larri aietan?

AZTIA

Begira zer ateraldi izan zuan aaide aietako batek: Deiotuko al diogu aztia? Gizon ikasiak uts eman badute. nork daki?...

Beste gabe. or dijuaz an inguruan ezaguna zan "Kaxka"ren billa, aztia biurri, ziri zartzalleari, deitzera.

Eta bai ekarri ere erregearen aurrera.

Bidean zijoan bitartean. onela esaten zion aztia bere buruari: "ez izutu "Kaxka". Emen baziok aldi baterako mauka ta'.

Erregeari aurkezterakoan, esan zioten oneri, gizon ura. "sistima" berri batekin. bere gaitza sendatzeraz zetorrela.

Bai erregeak onartu ere, sendagille jator eta jakintsuren bat zalakoan. Ez haitzuan ezagutzen aurrean zeukan alproja ura nor zan.

AZTERKETAK

Eta an asi zan "Kaxka" bere asterketak egiten: lenengo lana, gaxoaren begiak ondo miatu, gero zakeletik atera zuan, ezurrezko ziri txiki batekin erregearen zudurzuloak zeatz ikusi ondoren aren burua bere bi eskuen erdian artu, eta iru hider eskui aldera, eta beste iru bider ezkereruntz ibilli arazi.

Gero, ez dakit zenbat keñu ta imintzio egiñ ondoren. gaxoaren oñazpietako arrastoak ere astertu zizkion arek, sorionaren billa lli zanean, zernolako oinkadak eman zituan, jakiteko.

**_

ALKONDARA

Bere asterketak amaiturik, alditxo bat ixillik egon ta auxe esan zien ingurukoeri: Erregeak aratuste edo "kamabaletan", dantzara joateko, jantzi zuan alkandora ikusi nai zuala, bere iritzia zuzen eman aurretik.

Ekarri zioten bad aldandora ura.

"Kaxkak" eskuetan artu eta begira begira egonda gero, auxe esan zuan: Errege onek, beste gizon zorionsu baten alkandora jantzen ba'du, sendatuko da erabat.

"Bukatu det nere egitekoa, eta pozik artuko nuke orain dagokidan lansaria".

Eman zioten bada berea, eta katunarruan ondo gorde ondoren. an abiatu zan erregeneretik bere etxera.

PERU ETA TXOMIN

"Kaxka"ren sendagaia oieza iruditu zitzaion daneri, baiña alkondararen billa joatea erabaki zuten danak.

Asmo ortan, erregearen aolkulariak, biñaka zabaldu ziran, munduaren lau aizeetara.

Bikote oien izenak aaztu egin zaizkit, batenak ez besteak. Bakar onenak orrela ziran: Peru eta Txomin.

Nundik asiko gaituk?, esan zion Peru'k bere lagunari.

—Goazok lenengo, jauregi eta aberatsen etxetara. Oietan gizon zorionsurik ez bada, nun arkitu?. Erantzun zion Txomin'ek.

Lenengo atea jo zuten jauregian, ez beñipein. Gudarako antolaketa egiten ari ziran.

Emen ezin daitekek zorionik arkitu. Ikus dezagun beste jauregi bat.

An berriz, atea iriki zieten unean, izugarrizko oivak eta uluak eldu ziran gure gizonen belarrietara.

Zer gertatzen da or?- galdetzean, zera erantzun zion atezaiak: Langille batuek, euren lana gaizki egin diotela nagusiari, eta ordan, zigorikada beroak artzen ari dira, izan ere, nagusia oso asarre jarri bait da.

—Beste gabe? Galde Peru'k.

—Bai, beste gabe- erantzun atezaiak.

— Goazik emendik. etxe ontako alkandorakin ez dek iñor sendatuko ta.

Irugarren bizileku dotorean. an ere etzuten negarra besterik arkitu. Ama bat. iru aur txikirekin, bakarrik gelditua negarrez, aita, beste emakume baten ondoren, igesi joan zitzaielako.

Peru ta Txomin'ek beste jauregi eta etxe askoren atek jotzen jarraitu zuten. amor eman gabe. luzaroan: Jo ta jo. galde ta galde, zearo nekatuak eta sinistuak gelditu ziran arte. aberatsen etxeetan etzegola eurak billatzen zutenik.

ETXERA?

Berdintsu egin zuten erdimallako bizitokietan eta beartsuen artean ere eta ondorio berdiñakin.

Peru'k orduan onela eraso zion lagunari: Goazok etxera, gure miaketak alperrikuak dituk. badaitekek gañera beste iru bikoteak guk baño zori ohea euki izate.

Txomin'ek ere pozik entzun zuan Peru'k esana, eta onela erantzun zion lagunari: Bai. obe diagu. gu ler gaizto eginda gaudek. naita ere ezin geiagoan. Goazok.

GIZONA TA ABEREAK

Ortduko. beste iru bikote mandatariak aspaldi itzuliak ziren errege gaxoaren etxera. bañan irurak esku utsetan: Bear zan alkandora gabe.

"Jainkoak nai duana izan dedilla". eta etxera bidea artu zuten. naizta aurpegi illunekin. bai Peru ta bai Txomin'ek.

Eta bazijuazen..., ibilli ta ibilli. eldu ziran noizpait, erregearen Jauregia begien aurrean agertzeraño

Orduan errecondoko gurdibidea artu zuten, zuzen zuzen jauregira zeramana, alegia. Bide oso atsegiña, ibai eder baten, zuzen zuzen jauregira zeramana, alegia. Bide oso atsegiña, ibai eder baten basterretik, esker eskubitik zelai eder orlegiz estalia eta zugaitz oietako baten azpian, zutik, hi besoak zerurontz jasota, gizon bat ikusi zuten. Kantari ari zan, orrela otoitzean alegia.

Peru ta Txomin berari begira gelditu ziran. Gizona berriz, une batzuk orrela igaro ondoren. ur ertzera urbildu eta ozketan asi zan.

Norekin ari ote da? Esan zuan Peru'k.

A! Begira zak, Txomin, ur gañean agertzen ari dan arrai pilla. Batzuk euren muturrak azalduaz, besteak zilipurdi alaiak egiñaz, auek plist eta aiek plast, bazirudik arrai oiek gizonak esana ulertzen dutela. eta euren erara erantzuten ere badakitela.

Bien bitartean, zeruko egaztiak ere nola datorzkion eta bere buru gañean. beso ta eskuetan jarri. Beste batzuk, biraka egatuaz, arekjauritako artaleak begira nola arrapatzen dituzten. Oieri ere itz egin. eta euren txorrotzio alaiaz erantzun.

Eta orrela ari zala. basoko pizti ta abereak ere nun datorzkion, banaka, biñaka ta taldeka: ardiak arkumetxoekin, erbiak saltaka, txakurtxoak izatzari eragiñaz, auntzak. baita azariak ere, bakoitzak bere aokadea bere eskuetatik jan da gero, nola miazkatzen dizkio ten eskuak eta oñak.

Ura ikuskizuna!

Ale banaketa bukatzean ala esaten die pizti-guztieri: Zoazte orain, Jainkoarekin. on onak izan danekin. eta etorri, biar ere. Ekarriko arto eta gari ale batzuk. zuen anai gizonak. Jainkoaren laguntzaz lurreik atereak. Agur ba anai arraitxo, txoriño eta lur gañean zabiltzaten abere guztiok. Biar arte.

Etorri bezela, sakabanatu ziran danak, eta gizontxoak bakarrik gelditu zan.

ALKONDARA?

Peru ta Txomin arri ta zur gelditu ziran. Peru'k onela esan zion

orduan bere lagunari: Orretzek zirudik gizon zorionsua! Galdetuko al diogu bere berri?

Bai. Peru bai. erantzun zion Txomin'ek.

Beste gabe, urbildu beregana, eta: Aizu gizon! Esango al diguzu nor zaitugun? Eta gizonak:

—Bai bai. Ni anai Patxi naiz. or bereala dagon errixka ortakoa.

Ortxe bizi naiz, nerre anai batzuekin. or lantzen dugu lur pixka bat, geuretzat eta beartsu batzuentzat, eguneroko ogia ateratzeko.

Gero Jainkoa goretsi eta Berari eskerrak ematen igarotzen degu eguna.

Orra ba, nik nere berri eman. Eta zuek? Nundik zatozte edo nora zoazte?

Peru'k itzari eldu ta

—Gu erregearen morroiak gera -erantzun zion- eta orain etxera bidean goaz, munduan zear neurri gabeko ibillia egin da gero, eta badakizu ze elburukin? Alkandora baten billa. Bañan ez nolanaiko alkandora.

Arkituko zenduten noski? -galde gizontxoak-

Ez ta urrik eman ere. - Peru'k.

—Nolako alkandora bear zenuten ba?

—Nolakoak ez du ainbeste garrantzi. Norena, ori izan da gure gorapilloa. Gizon zorionsu batena, bear zuan izan, bestela ez da gai. Egiñalak egin arren, ordea, ez dugu arkitu gizon zorionsurik. bere alkandoraz jabetzeko.

Orduan Txomin'ek, bapatean onela eraso zion gizonari:

—Zu ez al zera zorionsua?

Ara! Esango dizut ba. Ni daukatenakin pozik nago. Neurri gabe aberatsa dan aita daukat zeruan. munduko gizaki guztiak. anai-arreba ditut, pizti ta abereak ere laguntzat naukate. Zer geiago bear det nik? Orrela ba, ni zorionsu naiz.

—Zu zera gure gizona! Oju egin zuan Txomin'ek. Emango al zeniguzuke zure alkandora -edo saldu- errege gaxoa sendatzeko?

ALKONDARAK BANATU

Orduan gizontxoak tamal aundia agerturik.

—Bai pozik, bañan orra!, nik alkandorarik ez euki. Orain gutxi dala. ni baño beartsuago bateri eman nion eta arrazkero ikusten dezuten atorra luze au besterik ez daukat nere soiña estaltzeko, berau naikoa det izan ere ta.

Bañan alkandora orde, aolku auxe eramane egiozue erregeari: Jantzitegian, alperrik dauzkan milla ta geiago alkandora eder aiek, bat ere ez daukeneri banatzen ba'dizkie. Jainkoak bateko eunekin ordainduko diola berari.

Entzun eta egin, aintxintxiketari eman zioten Txomin eta Peru'k. erregearen jaregiruntz, uste ez bezelako albiste ura eramatera.

Eldu ziranean, erregea, gizonenganako itxaropen guztiak galdu ta zegon, eta edozertarako gertu arkitzen zan, Peru ta Txominen erantzuna jakin eta gero.

Bereala agindu zuan gordeta zeuden bere alkandora guztiak beartsuen artean hanatzeko.

Etzan izan nolanaikoa alkandora gabeko aien poza, euren buruak errege berberaren soñekoetan bilduta ikusi zituztenean.

Eta arritzekoa! Orduantxe agertu zan erregearen ezpañetan, aien eskerrona ikustean, aspaldi gordea zeukan irrifarra. Orduantxe asi zan erregearen sendakuntza, eta bai osatu ere laster, eta askoan zorionsu bizi izan zan.

EUSKALDUNAK ETA FUEROAK (II)

Gezurrezko bidegabekeriak... Euskal-Fueroak, Euskal-erriko "zerga-ezak"-eta aipatzen dutuzte-nean, bidegabekeritzat jotzen dituzte or-kanpoan, eta beaiak dira gurekin bidegabekeri bat egiten dutenak orrela... Bear-bearrezkoa da orregatik gauza auek astiro eta sakonki aztertzea, ez-jakin asko bait-dago gai auetan... Eta ona-emen esan degun onen adibide bat: oraindik-orain sortu-berriak diran Autonomi askotako Lendakariak ez dakite au, baizik esaten: Autonomi guztiak trato berdiña jaso bear lutekela, baiñan ez dala ala izaten: Cataluña'k eta Euskal-erria'k trato berezi bat izaten dutela... Eta ori dala-ta, sortu dute aotik-ortzera erabiltzen duten "agravio comparativo" esakera xeble ori...

Suak artzen zuan Larramendi-aita orrelako zerbait aditzen zuanean... Eta ona-emen, olakoetan eman oi zuan erantzuna: "Guipúzcoa es tan libre y más que otras provincias porque nació libre, se crió libre, llegó a ser anciano y se mantiene libre en todos los estados..." Eta danok berdiñak gerala iñork esaten ba'zion, "ezezkoa" zan bere erantzuna: ez giñala berdiñak... Gure jokabide berezia genduala guteko bakoitzak bai persona bezela, bai erri bezela, eta baita Kondaira-barnean ere...

Segundo Idigoras... Ildo beretik dijoa ere, Telletxea Idigoras'ek, Larramendi'ren "Los Fueros de Guipúzcoa" liburuari egin zion itzaurrea... Eta Segundo Idigoras bere aitonari eskeiñi zion lantxo au... Eta ona-emen zergatik:

1906-garren urteko Urrilla zan... Gipuzkoa'ko alduak Madrid'era zijoazen orduan ere, Fuerotatik gelditzen zan apur ura gorde naiean: Gipuzkoa'k Madridpekin egiña zeukan "zerga-ituna! (Concierto Económico) berriztatzer, alegia... Zumarraga'ko geltokia leporaño zegoan jendez betea... Agertu zan, azken batean tren mutur-beltza kea pafaka zeriola... Eta geltokian gelditu zanean, oi u au egin zioin Aparicio'k Segundo'ri: orain dek ordua...

Kendu zuan Segundo'k ospe-aundiz txapela, jarri zan tente-tente, garbitu zuan eztarria, eta deadar au egin zuan indartsu: GORA GURE FUEROAK... Eta baita an zeudenak gogoz GORA...! erantzun ere...

Oso ondo datorkigu gaur aipamen au emen... Izan

ere, leengo aientzat ainbeste esan-nai zuten Fuero aiek, oso gutxi esan nai dute gaur guretzat, zoritzarrez...

Pakea eta Fueroak... Aipa dezagun, Segundo Idigoras'en "Gora Foruak...! deadarra aipatu degun bezelaxe, Jose Antonio Muñagorri'k "Pakea eta Foruak" jaso zuan ikurra ere... Antonio Maria de Labayen'ek ematen dizkigu Muñagorri'ren berri auek...

1794-ko apirilla'ren 2'an jaio zan Berastegi'n... Eta bertako eskribaua idazkaria eta alkatea izandu zan... Eskribauen semea eta billoba izan zan... Errentan izan zituan bertao burdin-olak, basoak eta meatzak... Gerrate eta burruka giroan azi zan ordea... Bere garai artan izan zan Frantzia'ko iraultza, erregeen gillotinako ilketak barne... Bere garaian sartu bait-ziran Gipuzkoa'n ere Frantzia'ko matxinadazale aiek, eta Gipuzkoaz jabetu... Andik pixkatera, 1808-garren urtean alegia, sortu zan Napoleon'ena deituriko gerratea, eta andik 20-urtera berriz, (1878) San Luis'en semeena deitua...

Eta auek-danak 25 urte barruan gertatu ziran... Ez da ba, arritzekoa, orrelako giro batean azitako gizon batek, FUEROAK izenaren ondoan PAKE izena ipintzea berak geroago jasoko zuan ikurrean...

Zuriak eta Beltzak... Erri guztietan sortu ziran "Zuriak eta Beltzak" izeneko bi alderdi auek... "Apostoliko" izenez ezagutuak ere batzuek, eta "Liberal" izenez besteak... Eta bai batzuek eta bai besteak gogorkerian erori ziran azken batean... Eta orregatik esan ere, esan dezakegu, gure-arteko gerozko senide-burrukak, alderdi auetan izan zutela beren sort-burua...

Cadiz'ko Konstituzioak (Legedi-nagusiak) zatiketa asko sortu zituan bai politika-arloan eta baita erligio-arloan ere... Eta Konstituzio orretzek iriki zituan, baita-ere, gure Fueroen-aurka erasotzeko ate guztiak...

"Irugarren-fratzesada" deituriko gudaketak ordea, ankaz-gora botatu zuan Cadiz'ko Konstituzio au, eta VII-Fernando izendatu zuan berriro Espaiñiako errege... Eta 1833-urteraño iraungo zuan pake-antzeko bat sortu zan gure artean orduan...

39 urte zituan garai artan Muñagorri'k, eta Gendulain'go kondeak dionez "hombre de arranque y emprendedor" izan zan Muñagorri au...

Berastegi'ko eskribaua... Ausardi aundiko gizona zala Muñagorri esan digu oraintxe Gendulain'go kondeak... Eta ausardi orren bearrean izango zan Muñagorri, orduan sortu zan egoeraren aurrean...

1833-ko irailla'ren 26'ean il zan VII-Fernando erregea... Eta burrukaren-sua piztu zuan eriotz onek karlisten artean... Eta laister zirar mendian Isabel'en gudaroztearen aurka: Zumalakarregi, Espartero... V-Carlos, Isabel...

Oriamendi'n lortu zuan karlista-jende onek ospe-aundiko garaipen bat... Lur-jota gelditu ziran Isabel'en aldeko militarrek... Eta auen etsipena ikustean, Espartero berak ere deplomazi-bideak ikusten zituan, biderik egokienak, pakea lortzeko...

Pentsakera berdiñekoa zan Muñagorri ere: pakea nai du onek ere, baiñan Fueroak ekarriko dituan pake bat... PAKEA eta FUEROAK...! onela bait-zion berak jasotako ikurrak...

Guda irabazi... Batzuek ez zioten Muñagorri'ri bere jokabidea barkatu... Izan ere, ez zuten auek, Fueroak lortzeko, bide bat besterik ikusten... Eta guda ura irabaztea zan, auek ortarako ikusten zuten bide bakarra... V-Carlos España'ko errege jartzen ba'zuten, onek itzuliko zizkion Euskal-erriari, dudarik gabe, bere Fueroak.

Madrid'era jotzen du ordea Muñagorri'k, eta an da 1837-ko Azaroa'n... Bardaji, bertako Lendakaria, ikustatzen du bertan, eta bere asmoak azaltzen dizkio oni... Oso-osorik onartzen ditu onek Muñagorri'ren asmoak, eta diru-laguntza bat ere ematen dio, bere asmo oiek aurrera eraman ditzan...

Ba'dira Euskal-erria-n ere, bere asmo auen alde agertzen diran batzuek eta batzuek... ETa auek lagun, jasotzen du Berastegi'n, 1838-ko apirillaren 18'an, bere asmoen ezaugarri izango zan ikurra, eta bi itz auek bertan: PAKEA eta FUEROAK...

Ramon Elorrio txapelgorrien sargentoa... Liberalak izan ziran, denbora batean, "txapelgorri" izenaren jabe... Eta orregatik esan degun, esan ere, "txapelgorrien sargentoa" izan zala Ramon Elorrio au, naiz-eta liberalen sargentoa izan.

V-Carlos baitzeko erabakia artu zuten Iparraldean liberalak... Azkoitian bizi zan orduan V-Carlos... Itxasoz etorriko ziran Zumaia-raño, eta gaeuz egingo zuten andik-Askoitirako bidea Urola ibaiak egiten zuan bideari jarraituz... Ez ziran Azkoiti'ko solda-

duak jokabide onekin konturatuko, eta errez baituko zuten V-Carlos erregea...

Baiñan asmo ori, asmo-uts gertatu zan... Eta Muñagorri'ri leporatu zion Ramon Elorrio'k asmo orren porrota, eta ez zion sekula barkatu nai izan: Erasun'go Zumarrista-olan aurkitu zuan lenean... Zeramazkian soldaduekin errez baitu zuan, eta Pilo-ta-soro gaiñean erail zuten tirokoa...

Maltzurkeri bat zan dana... Etxabe-Sustaeta'k esaten digunez, "Muñagorri'k sorturiko PAKEA eta FUEROAK mogimenduak porrot egin zuala, emen-go karlistak ez zutelako Muñagorri'ren jokabidean egiaz sinistu... Maltzurkeri bat ikusten bait-zuten Muñagorri'ren jokabide au...".

Alare izan ziran Muñagorri'ren jokabidean sinistu zutenak: Gipuzkoa'ko Batzar-Nagusietako jaunak esate baterako... Deba'n bildu bait-ziran auek, gerra bukatu ondoren, lenengoz... Eta auxe izan zan billera orren arazoi bakarra: "expresar su gratitud al escribano de Barastegui, don Juan Antonio de Muñagorri y a cuantos hayan contribuido con sus esfuerzos a la defensa de los Fueros..".

1839-ko abendua zan...

Fueroen aldeko jokabidea... Ez zan berdiña, danentzat, Fueroen-aldeko jokabidea... Fueroak batzuentzat, erregearen eskuetan zeuden bakar-bakarririk... Ameslari-utsak ziran, eta ona emen beren itzak: "La existencia de los Fueros depende del triunfo del rey... Triunfando Carlos V, trinfan los Fueros, pero triunfando la revolución, se hundirán los Fueros". Eta ondorio auek ateratzen dituzte gaiñera: "Los sentimientos del pueblo vasco-navarro están reducidas a estas dos bases: Religion y Rey. La Paz y los Fueros son su inmediata consecuencia".

Beste batzuentzat ordea, ez zan aski dana erregearen eskuetan uztea. Erriak ere, parte artu bear zuan Fueroen aldeko burruka ortan... Eta VII-Fernando il bezein laister dei auek zabaldu zituzten iru probintzietako iri-buruetan... "Esnatu bipuzkoarrok...! Barkatu-ezinezko pekatua izango litzake zuen arduragabetasuna... Deitu dituzute, bada, Jainkoa, Furuak, Aberria eta zuen Erregea...".

"Iritxi da, azken batean, arabarrok ain-gogozko genduan eguna... Ba'degu, nai-genduan bezelako Errege bat, eta ba'ditugu ere, gurre Fueroak gordeko dizkiguten ordezkariak ere...

Eta matxinadako dei au entzun zan Bilbo'n 1833-ko urrilla'ren 3'an: zapalduak ditugu gurre Fueroak, eta ezereztua gure askatasuna...

Kain'en ondarea... Auek dira, gai oni buruz, Arturo Campion'ek egiten dituan galderak, eta ematen dituan erantzunak:

- Zer da bada, guretzat, Kain'en ondare ori...?
 - Anai-arteko borroka!
 - Eta nola borroka orri azkena eman...?
 - Borroka ori sortzen duten zergatiak kenduaz.
 - Eta zer-nolakoak dira zergati oiek...?
 - Naparroa'ren eta Euskal-erria'ren Fueroen-aurkako jokabideak...

Eta auek-danak kontuan artuak izan ziran Lizarra'n (Naparroan) Zumalakarregi buruzagitzat aukeratu zutenean 1833-ko azaroaren 14'an: "Hacia falta una persona que destacara por su reconocida experiencia y pericia en el arte militar"... Eta batik bat: "Por su adhesión a los Fueros"... Eta alaxe zan Zumalakarregi: Fuero-zale porrokatu bat.

Fuero-zaleak karlistak...? Izan ziran, au zalantzan jarri zutenak... Eta izan ziran beste au esaten zutenak ere: Karlista-Erregeak ez zituztela Fueroak maite izan V-Carlos bera barne... Eta onela egiztazten zuten beren esan au: aipatu al'zitian, inoiz V-Carlos'ek Fueroak 7-urteko gerrate artan...? Eta kezka onek aurrera egin zuan VII-Carlos ere barnean sartuaz... Egia da, 1875-ko uztailla'ren 3'an izenpetu zuala onek Bizkai'ko Fueroa, eta 4 egun geroago, uztailla'ren 7' an alegia, izenpetu zuala ere gipuzkoakoa Ordizia'n... Baiñan ez ote zituan ortara beratu zutelako izenpetu...? au bait-dio Sustaeta berri-emalleak: "No hubo juramento ni en Alava, ni en Navarra, por circunstancias ajenas a la voluntad de Carlos VII...". Eta itz auekin azkentzen du Campion'ek gai an: "No conozco ningún documento de D. Carlos que se refiera a los Fueros de Navarra: poco afecto les demostró, negándose a jurarlos...".

Maroto eta Espartero... Utzi-bearrean gera orain, karlisten-gerrateak... Eta ezin ukatuko izango degu, penagarria zaigula gai au alboratzera Zumalakarregi'ren, Santa Cruzko Abadea'ren, Maroto'ren eta Espartero'ren aipamen berezerik egin-gabe... Espartero...

Logroño'ra joaten naizen bakoitzean, ez nai etxeratzen Espartero'ri jasotako oroigarria ikustatugabe... Erriko enparantzan... zaldi gaiñean... eta ezpata-gora, bere soldaduei itzaldi-sutsu bat egiten ariko ba'litz bezela, edo-ta euskaldunon Fueroak gorde-naiko ba'lituzke bezela... Eta Fueroen kontuan...

Redonda-izeneko elizara ere joaten naiz, an bait-dago obiratu bera... Eta ezin ukatu izango det "aitagure" bat ere errezatzen ez diodanik... Berak ainbat gorrotatu zuan Fueroa datorkit orduan gogora, eta au bait-dio gure Fuero orrek: "Que el Señor le dé Santo Paraiso".

Eta au-dana, ez gure laguna izan zalako, gure etsaia izan zalako baizik: ez bait-zuan gurer Fueroerik ikusi-nai ere... Eta ezin-jasan zuan ere, euskaldunak beren Fueroak gordetzearren beren bizia emateko prest-egotea...

Erregearen Ordezkarria zan 1841'ean... Eta ez ziztaion Euskal-erria'ri begira, au besterik gogoratu: Batzar-Nagusiak galerazi eta Aldundiak itxi... Eta auekin ase ez zalako-edo, urte ortako iraila'ren 11'an itxi-erazi zuan ere Oñati'ko Unibersitate, gezurrezko aitzakiak bide...

Abadiño'ko "San Antolin" elizatxoan... Biaramonean izenpetuko zuten Maroto'k eta Espartero'k betriako su-etena Bergara'n... Eta Itun au izango zan, karlisten Fueroen-aldeko gerrateei azkena emango izen ituna... Eta orrelakoetan, noski, billera bat egiten dute bi alderdikoak zeetasun guztiak ondo loturik uzteko... Eta Abadiño'ko "San Antolin" elizatxoan bildu ziran ortarako Maroto eta Espartero eta bien aolkariak... Eta euskaldunen aotik itz auek entzun zituanean "ez degu Fueroerik-gabeko pakerik nai" asarre bizi batean irten zan Espartero billeratik au esanaz: "gerrea nai baldi ba'dezute, gerrea izango dezute...".

Egin zuanaren damua sentitu zualako edo norbaittek aolku zuzen bat eman ziolako, Bergara'n agertu zan biaramonean Espartero jauna... Eta "Pake-Ituna" izenpetu ondoren "besardaka gogoangarri ura" izan zuten bi buruzagiak: Maroto'k eta Espartero'k alegia... Eta ona-emen zer dion Itun orren lenengo atalak: "El Capitán General don Baldomero Espartero recomendará con interés al Gobierno, el cumplimiento de su oferta de comprometerse formalmente a proponer a las Cortes la concesión o modificación de los Fueros...".

Eta Bergara'ko besarkada onek ixildu zituan betriako, leen esan degun bezela, "karlisten Fueroen aldeko" gerrateak...

DONATO ARRINDA
ANASTASIO ALBIZU

EUSKALDUNTZE AUZIA

NOREN ESKU?

Gure Legebiltzarrerako azken-austenkunde ondoren, Jaurilaritza barria aukeratzean izan ziran borroka ta eztabaidak, gure aurreko idaz-lanetan agert-erazten alegindu giñan.

PSE-EE'k, beste abertzale ezdiran alderdien baimen eta poz aundiagaz, tinko ta adoretu jokatu eban alegiñak egiten Ezkuntza-Saila ta Iizkuntza Politikarako Idazkaritza eskuratzeko. baiña ez eban bere asmoa lortu.

Eztabaida, gora-bera. ta larri-aldi asko goitu ta gero, Ezkuntz ta Izkuntzari dagokion eskubide guztiak. abertzaleen eskuetan geratu ziran.

Arazo au aspalditik ezagutu ez ba'gendu, PSE-EE eta abertzale ez diran beste alderdien euskereakiko jarrera ain arduratsu ori agertzea arrituko giñake. baiña badakigu euren asmoak nolakoak diran eta zertarako gura daben aginbideak eskuratzeko.

Aurreko legebiltzarra-aldian. Buesa jaunaren jarduera kontuan arturik. bearrezkoa zan. al izan ezkerero, PSE-EE'tik euskerearen arauketa ta esskubide guztiak aldentzea.

EZ DA ZILLEGI

Euskalduntze gaiari buruz. jakiña da alderdi bakoitzak bere asmo ta jokaera dauzala. baiña ez litzake olan izan bear. Erri baten izkuntza ez a talde edo alderdi batena soil-soillean, erritar guztiarena baino. Beraz. norhearen onurako tresna bat bezela erabiltzea ez da deduzko. ez zillegi.

Oraintsu be. Euskaltzaindiak salatu bear izan eban Araba'ko Batzarretan UA. PSE-EE eta PP alderdiak gai onetan adi-erazi eben jarrera.

Euskerea dala-ta egindako galdekuntza edo inkesta baten, Euskaltzaindia'ren aolkoak ez ebezan aintzat artu ta, onezaz gaiñera. Akademiaren iritziz galdekuntzan jarritako galdera batzuk ez eben ezkuntzarekin, ez ezkuntzarekin zerikusirik.

Berak. Euskaltzandia'k aitaturko inkestea "*Uts i:ugarria ta eskuhideeu zapaltzailea*" dala baieztu eban.

ARABA'N

Euskereari buruzko arazoak iñun baiño sariago Araba'n sortzen dira.

Baiña ez du, esaten oi dan bezela, euskerea Araba'ko berezko edo jatorrizko izkuntza ez dalako. Araba Euskal-Erriko beste lmaldeak bezela. euskalduna izan da beti, bertan izkuntzaren atzerakadea nabari ta aundiagoa izan.

Gertaera onen zergatia argi dago.

Araba eta naparra dira Euskal-Erriko erbesteagaz mugarri luzeenak dabezanak. Orregaitik antziñatik atzerritarrekin arremanak ugari, euskerearen kaltez, izan dabez.

Bizkaia eta batez be Gipuzkoa, ostera, barruko aldean eta bes-tien bahespean kokatuta, euskal giroan ingaturik. izkuntza obeto zaindu al izan dabe.

Olan izanik, ARabak iñoren estalpe barik beste errialdeak baiño erdal eragimen geiago jasan bear izan ba-dau, legezkoa da euskerea

berreskuratzean be, laguntza aundiagoa artzea, ainbeste oztopo ta galga jarri bearrean.

ARERIOAK

Españazale alderdiak euskereari buruzko gairen bat mai gaiñean jartzen daben bakoitzean. ezinbestez eztabaida ta borroka dogu. Ez da ioiz jazo. asmo-agertze bat lagungarri ta eginkor izan danik.

Len aitatu dogun Araba'n egindako izkuntzari buruzko galdekuntza edo inkestak ekarri dauzkuzan borroka ta zalaparta keskagarriak, ba-dirudi, onartzen ta sendotu egiten dabezala oraintsu egunkarietan irakurri al-izan dogun esaera: "*Euskerea nora istilu ara*".

Tamalgarría da baiña esaera orrek adierazten dauskuna, begia bezelako egia da.

Aspaldi ontan, batez be Araba'n plitikari artean izkuntza gaia sortzen danean. euskerea beti dator eztabaida ta matrakari lotuta.

Sarritan gertatzen dan-ezkerero euskeraren gaia aldatu ta kutsatu-ta agertzen jatku.

Au dala-ta. *ETA ta fiurdamentalismu* itzak Euskadi-n eta islamdar-errietan irakurri edo entzutean, eztanda ta eraiketak burura ekarten dauskuezan bezelaxe, baita euskereari, onetan edo alan, jazo leitekena da: Gai bada-ezpaako, ezezkoi ta nardagarria bezela agertzea.

SS

MAITASUNIK EZA

Agerkizun galgarri au sortzen ba-da. euskereakiko maitasunik-ezean oiñarrituta dago.

Izkuntza erri baten gogo ta bizitza adierazpena dan-ezkerero, aurrez-aurre aurka egitea kaldar izango litzakela-ta azaluskerira jo ta, lotsa barik, azpi-jokoa erabiltzen da.

Beti bezela. oraintsu be ori da Euskalsuntze Auziari buruz Araba'n gertatu dana.

Alderdi ez abertzale, ez euskaltzale (PSE-EE, PP. UA) diranak, biotz eta ago batez euskerearen aurkako eraso-aldi bat antolatuta gura izan dabe.

Onartugarria izan leiteken itxuraz egitarau bat aurkeztu, baiñ berre baitan estaldu eziñezko maltzurkeri ta azpi-joko daroazala.

Euskalduntze maillako ain ustel eta indar-gabeko dan eredu A eskeiñi ta eutsi bearrean jarduntzea, erriak eredu B eta D eskatzen dauzan bitartean.

Euren ardurea ez da besterik.euskerearen zahalkundeari galga jartzea baiño.

Arerioak ondo dakie euskerea euskotarren bereiztasun eta ezau-garririk aundierna dala. ta berau galdu-ezkerero Euskadi be il-zorian geratuko litzakela.

Or datza euren izugarrizko ardurea aurka egiteko, naizta azalke-riz ibilli.

Beraz gaur egun, euskerearen larri-aldia ikusirik, euskotarren zeregin andi-enetariko bat, gure izkuntza zaindu, sendotu ta erabiltzea dogu.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

GEURE GOTZAINAREN IZENDATZEA DALA-TA

Kristau guztiok dakiguna da zilakoa izan zan Batikanoko 11 Batzar Nagusian, uni aritan bizi ginduan Eliizarin jokabidi gaurkotzailia ta barriztatzaillea, argitu iuskuzan oiñarri sakon ita arrazoi idirrakaitik.

Oiñarri ita arrazoi oniitatik batzuk ikaragarritzko aldakuntza iroiin iurin muiñean guztiok osotzin genduan Eleiza osatzeko. Euritatik nagusiinatariko bat auxi izan zan: **"Eleiza Jainko-Erri" lez berrikustatzea.**

Eta Eliiza birrikustatzi orrin ardatz nagusi bi onixik ziran: hata, **Eleizan ez dagola iñor beste iñor baiño geiago danik, danok neba-arrebak garalako, Aita baten seme-alabak izatearen ondorio lez.** (Pintsakira au txiki-txikitatik intzuna ta ikasia ginduan giuri jaioirrietan Jesusin Barri Ona irakustin iuskunian). Baiña, zoritxarrit ita gizaldiitan ziar, jirarkiak goiko maillaraño jaso eban biri buru izatia... bigarrenirako abadi, prailli ta likaimiak utzirik... "piramidi" orrin biiringoko maillan irri xia ipiñiz.

Orriz gaiñira, monjak eta prailliak, abadeak ita gotzaiñak, kardinalak ita Aita Santua bira bi santuagotzat iukiten irakatsi iskuin. Batikano II'ak, ostira, oniri buruz iri **kristau guztiok quintasun bardiña dogula eta deuntasun bardiñera deituak garala aldarrikatuko deusku. Ori bai, bakoitzak bere bokaziño ezbardiña biziz eta "funtzio" edo zeregiñ ezbardiñak betez Eleiza amaren barruan.**

Pentsakira onin aldakuntza irudiz argitu ta garbitu nairik liingo **"piramidearen orde borobil bat"** margotuko giunke. (Jakiña da Batikano II'eko garbikuntza ta barrikuntza ilburuak eri bisti gai askotara zuzindu zirana: Liturjia zintzun barri batira iroati-ra, giure munduarin izaugarri biriziak aztirtzira, Ama Birjiña Bira Eliizarin misterioarin barruan izartzira, Kristauin abaditza arrunta ta ministiriara argitzira ta beriiztera, Misiñoiak gizatzira, iainkoarin Itza obito izagutzira, laikoin zirigiña argitzira, Eukaristia ardaztira...).

Baiña ziintzia izbardiñitako jakintsuak ita aztirtzailliak diñoskuin... Kontzilioaren aberastasunitatik iuniko ogeia (%20) ido ipiñi ii da bakarrik martxan. **Non datza atzerakuntza onen zergaitia?** Egari ta askatasunari dagokiian arriskuin bildurrian? Ezagutuak damoskun ziurtasunari iutsi-naian? Bide barriak urratziak dakarskun urduritasunian? Ainbisti urti dituin oiturak iz galtzian?

Orañ arti laburtxoigi idatzi dodana, sarrira-gisan idatzi dot ita birtan aurkitzin dot datozin lirroak idartziko bear dodan ausarmin iturria.

Goazin, bada, idazlantxo onin arira.

Uni onitan, ita orain arte isan dogunari loturik, giuri Eleizbarrutian, Bilbaon, (baiña Euskadi osoan isango niuke nik) girtatzin jakun jokabidi tamalgari batek kizkatzen nau niuri barruan. Danok dakiguniz, **Bilboko Eleizbarrutia Gotzain barria noiz izendatuko aurkitzen da denbora luze xamarrean.**

Aldi batitik iz dirixot arritzekoa ia-ia ogetakak urtitan zear iz abilako iuskaldun gotzaiñik sagaratu, pixkanaka batzuk izan izik, naiz-ita iuskal iliiz-gizonin kopurua guztiz abiratsa ta iridugarri izan, batiz bi aldi ariitan. Oniz gaiñira, munduan ziar sagaratuta dagozan iuskal gotzaiñak iri iz dira ainbiste an ita imin. Eta au onela izanik, irdalduna dan gotzaiñ bat bialduko baliuskiguki? (Iruñan girtau jakuna gogoratzekoa da).

Ba-dakit, ita danok dakigu, Eliiza amarin ezaugarri bikaiñita-

rikoin bat **katolikoa, nnibertsala,** orokorra izatean datzana. Eziñizkoa da eta pintsatu ire iz dogu igitin "Eliiza Nazional" baten.

Baiña, aal bada, eta ni neu beintzat orretan nago, erri bakoitzak dituan berezitasunak eta eskubideak ere ezin daitekez edozelan baztertu... eta gitxiago ondiño Jaungoikoaren naiaren izenean. Oniri buruz, asko sufritutako irria dogu guria. ("Clero Vasco" clirixoin taldeko tistiguin autorminak ita idazkiak doguz izpillu argi onetzaz).

Gaiñera Euskadi irri txiki bat izatian... askoz be geiago aali-gindu ta arduratu biar gara aurritantzin bi beri nortasunian oiñarrituz bizirik irauñ dagian. Eta ikintza au guztion arduria izan biar bada... zilan iz da izango, batiz bi, giuri Eliiza amarina, txikiin eta biarrizantzin aurkitzen diranin laguntzailli ta babesli izatiko Jesusek sortu iban izkero?

Biste on-inbesti isango niuki Euskadi baiño latirri aundiagok diranii buruz: iurin aunditasuna iz dagola bakarrik ita batiz bi biztanli asko ta lurraldi zabalak iukitian... txikiagoak diranak babisten, zaintzin, irrispizatzin ita aurritantza urtetin laguntzian baiño.

Niri eritziz, guri irria biri burujabitasun osorantza doa, aal dauanik ita lasterren, ita Gernikako Estatutoan baieztuta dagozan iskubidi nagusiak iskuratzin eta laterri batintzat biarrizkoak diran erakundeak izan-iz: Eusko Jaurlarritza, Legi Biltzarra, Gernikako Juntetxia, giuri Aldundi ita Udalitzeak, Ertzaiña...

Kontziintzizko igoira barri ita intiresgarri onetan Eliiza maillako arazoetan bisti ari batitik jokatu ezker... ainbat ita ainbat kristau iuskotar ita iuskaldun giinontzat mingarria ta lotsagarria izango litzatiki. Usti dot naiko zauri mingarri ditula guri garuko Euskadik eta pixka bat gozotzeko ita gozauazotiko aldien igarri garala.

Idazlantxo onen sarrirako ikuspigitik bigiratu izkiro, arrituta iztin nau bisti jokaira batik. Au da: onilako girtakizun batin aurrean iz gotzaiñak iurak, ezta abade-paraili-likaimiak eri ita kristau-irriak gitxiago oraindiño... zeozer isatiko aukerarik ez izatia... iritzirik be iz jakulako iskatzin guztiok osotzin dogun Eliizako anaidian. Gaurko mundu ta Eliiza ilduitan, non dauka tokia "korrisponsabilitati" itz egoki orren isan naiak? Guri garuko arazo au ita bisti ira askotakoak iri... ez litzatekez obito igongo laterri bakoitzeko "Confidencia Episcopal" deitzen dautsagun Eliiz-irakundiin babispian ita ardurapian, Erroma jakitun dalarik?

Parkatuko daustazue biste galdira bat igitia: noiz ikusko doguz geuri euskal gotzaiñak ofizialki irakundeturik? Nondikan dabiltzaz katalandar gotzaiñak ita birtako kristau-erria oraintxi birtan galditu dogunari buruz?

Eta amaitzeko, dii zoli bat neuri abadikidiii.

Arazo onitan -Bilborako Gotzaiña izindatzerakoan- giuri artian giunkazan ikuspuntuak iri aldatzen doiiazalakoan nago. Okir iz banabil ita asiira batin, guri Gotzaiña normalian iuskalduna izatia zuzin ita bidizkotzat onartzin genduan ita liingino maillako baldintzatzat ipintin ginduan. Urtea joan eta urtia itorri... ita orañ entzutun doguniz... laugarren ido bostgarrin maillan biti biarko litzatikin baldintza batin biurtu ii da. Onila balitz, usti dot bisti era batira jotzin aaligindu biarko giñatikila jaungoikoaren izinean zirbitzera itorri garan Erri baten nortasuna ita iskubidiak gitxiagotzat iukiak izan iz daitizan.

ARGIUNEAK



Zozomikoteak

—Zer esan nai dau esaera onek: Cuando febrero febreera, marzo marcea?

—Gogorra izango dala martia, otsailla bigun igarotzen danian. Ortik, edo, sortuko zirian Zozomikoteen siniskeriak.

—Zer dira, ba, zozomikote oneik?

— Illaren aizken egunean, parre egin omen zion artzai batek Martiari,

eguraldi oso txarrak izanda be, ardi bakar bat ez ziolako erail.

—Eta?

—Orduan Martiak Apirillari:

Ai Apiltxo, Apiltxo
ekatzak hi egun eta erditxo
artzai orri kendu iotzan
eun ardi eta arie
eta berari ezkerreko begie.

—Eta, zer gertatu zan geiago?

— Sekulako elurrak bota ebazan Martxok bi egun t'erdi oietan artalde osoa akabatzeke eran, aria ezik.

— Aria salbatu zan?

—Bai eta artzaiak lepoan artu eban; bidian oitzala, ariak aldamera begiratu eta artzaiari begia galdu...

—Apirilla gogor asten danian, orduan esaten dabe, Zozomikoteak dirala.

—Ori bai dala kalabazan sartzeko modukoa.



Aralar'ko Mugarrie

— Ataun'dik San Migel'era bidan, Igaratzatik aurrexeago, an daukau Irumugarrieta tontorra.

— Iru muga al dagoz an?

— Bai: Ataun, Bakaikoa eta Etxarri-Aranaz'en arteko irumugata; baña, ataundar batek (esaera zaarra da: Ataun'en eta Zegama'n / egunez ikusi eta gabaz eraman) mugarria aldatu eban Ataun'en alde.

—Mugarriak aldatzea oitura naiko zaarra da.

—Baña, koittarua il zanian, mendirik mendi ebillen arria bizkarrean ebal, oleka keixaz:

Irumugarrietako mugarrie
nere animaren galgarrie.

Nun saar... Nun saar...

— Nun ebillen, ba?

—Mendietan zear. Lazkautar batek erantzun eutson bein: Sartzak ateratako tokian... Sartu eban eta kito.

—Bide orretatik aurrera, kalabaza aunditxoa bearko dogu gaur.

Ratzinger eta eskontza-ausiak

—Txo, zuk esan zenduan ze, Ratzinger'ek esan dauala ze, eskontza auasteko bide barriak, billa bear dirazela... Nolan liteke ori?

— Lenago aberatsak topatzen ebezan bide barri oneik, nekez eta kostata, bañan topatu.

—Bai, orain be, Rocio Jurado'k errezago topako dauz Anton Txilibristo'k baño...

— Ba, ez pentsa. 1990'garren urtean Donostia'ko Gotzaitegian bi eskontza-ausi prestatu ziran eta joan dan urtean, berriz, bederatzi.

—Bai, alan ixango da diruaren otsarekin batera...

—Ba, ez pentsa, esango deusut berriro: Elizak 65.000 pezeta eskantzen dauz lan orretarako eta irutatik bateri ez deutsoe ezer kobretan...

— Bai, eta abogaduena?

—Ori ez da Elizaren arazoa, norberarena baño; eta orretarako millioi erdibat bearko dozu.

— Eta, zergaitik ez deutse daneri emoten eta kito?

— Elizak ez dauko aalmenik orretarako. Ezkontza ondo egin ba'da eta ezkontza izan ba'da, orduan ez dago ezer egiterik. Jesus' ek ori garbi erakutsi dau.

—Zer dozak, ba, Ratzinger'en bide barri oneik?

—Benetako ezkontzarik ez zala izan, erakusten daben bide berriak.

— Zer bide?

— Benetako ezkontza batek baldintza asko bete bear ditu. Esate baterako, lenengoa da barru eta kanpoko askatasuna. Beartutako ezkontza ez da benetako ezkontza.

—Ba, gure auzokoko Maikutz, aurra izan ebelako aurretik, or daukazu betirako ezkontuta. Bi familiak alkar artu eta aurretik eraman zituzten aldara aurrera... Eta, or dagoz biak lepezamarretik lotuta.

— Ba, lotuta ori nai dutenean askatu lezateke. Or ez dago benetako ezkontzarik Gaur egun Elizak askatzen ditu.

—Eta zer baldintza geiago?

—Semea-alabak nai izatea; omosexuala ez izatea; ezkontza betirakoa nai izatea; ezkontzarako gai izatea; elizan jasotako eskubideak, gero betetzea; burutik naastuta ez ibiltzea; bere nortasunean eldu-gabea izatea...

—Ez dira gauza gutxi.

—Eta ez dira guztiak or amaitzen.

—Eta, batek nai ez badau?

—Orduan, giputkek Iruña'ko epaitegira jo dezake. Eunetik 5 ez ba'da; beste guztiak onartzen ditu Iruña'k.

— Eta, aurrerago?

— Rota'ko epaitegira jo bear da; arek izango dau azken-itza.

Manizaleen Salmoa

(I. Apostoluen... Eliza. LATIEGI).

"Atoz nigana, zu, o Kristo bizia.

Atozkida, Egunen Argia.

O zu, biozbera, atsegin-emaillea!

Zuri dagizut oi.

Izan zaitez samin-aroon nere laguntzaillea;

zure uztarri leguna,

garbitasun osoz,

lepo-gaiñean artua bait dizut.

Aintza bedi zuri; bedi garaitza

gure Jauna zeran orri!

Aintza zuk aukeratutako zintzoei!

Aintza, baita ere, zuri, o Miren doatsua:

Eta aintza zure anima aratz argiari.

— Eta, zein zan Mani jaun ori?





– Judu eta kristau aldekeri edo sekta batean sortua; Indian Buda eta Zoroastro-ren jakin gaiaren bila.

Eta, zer zion jaun orrek?

– Berak sortu zuan Manikeria: Izadia bi sortazillen sorketa da.

– Guk esaten dogu, Batek sortu zuala.

– Onek, berriz, bi ipintzen ditu: Bata Ona eta bestea Txarra, bata Argia eta bestea Illuna, alkarren artean burrukan dabiltzanak.

– Eta, noizkoa da pentsakera ori?

– Irugarren gizaldian asi eta bereala zabaldu zan Asia inguruan; baña, gero, indar guztiak bere aurka ipiñi zitun eta, azkenik, Leon Aundiak, bosgarren gizaldia, gaitzetsi zuan.

– Alan be, salmoa polita da.

Bai, baña ez dira guztiak txuri edo beltz.

– Zer dira ba?

– Gure aitaren esanetara mundu onetan ez dago bat aingeruak bezin zuri; ezta deabrua bezin beltz be.

– Zer gera ba, orduan?

– Astuen antzera, grisak edo nabarrak; baita zebren antzera, arrasto beltzak zuriakin naastnta.



Diaspora

– Baarrunen izena dok ala, diaspora?

Ez, gizon, izen ori emoten eutsen Palestina'tik kanpo bizi ziran eta bizi diran, judutarrei.

– Bai, Ninive eta Babilonia'n erbesteratnak izan zirian.

– Baita Erroma'ko Imperioran zear be. Bost aldiz judutar geiago bizi ei ziran kanpotik Palestina'n baño, Jesus'en denboran.

– Orixe berbera ez da pasaten euskaldunekin? Geuk be badogu diaspora bat: Euskadin bertan baño euskaldun geiago bizi dok munduan zear.

– Badakit zer gerta jakon lekitar bateri New York'en.

– Barrabaskeriren bat.

– Ari zan kale-ertzeko errizain bateri galdezka Txitxarro-kaleko

ingelera naaspillotsu batean asma eziñik... eta errizaiñak erantzun: - Joanari ezkerreko kale orretatik. eta 48 kalea topaten ba'dok, an dok... Lekitarra orain be ao-zabalik dago.

– Orain, berriz, Beltzei tokaten jake diaspora: Beuren errietan nundik bizi eziñik eta famili ugariak eta nora-ara joan bear.

– Lenago geure baserrietan askotan gertaten zana: lurra eskas eta seme-alabak ugari... eta jateko diasporara joan bear neskame edo morroi.

– Geure errietako kaleak goenetako baserrietatik bete. Ori izan da emengo legea.

Ugaritasuna etxe geienetan zegoen. Or dozu Loiola'ko Iñigo be, seme-alabetatik bera amairugarrena.

Orrelako konturik ez dago gaur familietan: jainkoa bezela, bat eta bera naikoa. Europa'ko errien artean, geuk gitxien...

– Eta, nork askatuko dau Euskadi?

– Beltzen semealabak ez badira, iñork be ez. Ez da egongo zeñek.

Errizaiñaren bandoa

Errizaiñak jo dau bandoa; baña onek ez dau balio.

– Zergaitik. ba?

Autmobilletik jatxi barik eta mikrofono zar orregaz. Lenago Lekitto'n Juan Atabal'ek danborra jotzen eban kanto guztietan. Akordatzen zara egun batez gertatutakoa.

Arranegi kaleko portuko kantoian ebillen danbor joka Beasko kalean txamarrote bat galdu zala-ta.

– Eta, nik esan neutson: Txo, txo, zer darabiltzu, orain esan dozu Beaskokalean eta lenago Gokokalean...

– Ya me has trastornau. Talatik asi biarkot berriro...

– Okerrago egiten eban Piti'k Elvillar'en: Berak entenditzen ez ebanak, kendu... Zertarako alperrik jardun? Izan be, esan eustan bein, Gasteiz'ko Gobernadore jaun orrek sekulako bando gatzak botaten deuskuz... eta neuk ulertzen ez ba dot, bestiak gutxiago. Kanpora berba gaitz guztiak.



Mutiko korapillotsua

– Aitaxo, aunditzen ari naz eta zeure laguntzaren bearra daukot, bizitzan aurrera egiteko.

– Bai, semetxo, nundik asiko gara?

– Artatik asi.

– Lorak nolán sortzen diran?

Loren ajolik ez dot.

– Erleak zelan ugaltzen diran?

– Eztia guztokoa zait bañan ez dot erleen ardurarik.

– Zer dozu, ba?

– Neure korapilloa gatzaxogoa da eta latzaxogoa.

Bai?

Bai, orixe.

– Esan esan...

– Zortzi urte bete dodaz eta neure jaietako betebearrak amar durokin, zelan beteko dodaz ondo? Gutxienez ogei duro bear dodaz.



Amorrañetan

Errioxa aldera joan gara astearen azkena igarotzera.

Zertara?

Amorrañetan.

– Eta zenbat?

– Amorrañak 699.

– Amon'aiñak ala eskaluak?

– Amorrañak eta ederrak.

– Zergaitik ez dok 700 esan? Borobillago.

– Amorrain bategaitik zelan asiko nok gezurretan!

Euskaltzaindia atesuan

Amorraña amuan lez, Euskaltzaindia be atesuan.

– Napparroa'ko Camara de Comptos eta Euskadi'ko Kontuentzako Epaitegi nagusiak, ikerketa batzuen ondoren, zuloa topatu dau...

– Zenbateko zuloa?

– Irurogeita bederatziko milloiko zuloa.

– Ez dok gitxi, naidan beste diru artunda gero...

– M. Atxaga'k esaten ebanez milla milloiko baño geiago artun dabez aizkeneko urte auetan eta aizkeneko, zuloa galanta.

– Eta, zer esan dautse kontu-artzailleek?

Gora begira ez egoteko ao-zabalik manaren zai eta bee onetan arkitzeko beste diru-sorrerak, goitik datozenak iturri geiagorik ezin deikela iriki...

Baña, irikiko dabez eta emango deutsez geiago, Real Academia de la Lengua Vasca orreri eurok, agintea izan debenak, emon deutse agintaritz osoa Euskadi guztian, jaun eta jabe izateko... Euron alaba da-ta, eutsiko deutsoe...

— Eta, bitartean, zeurok zer? Or zagoze esku-utsik; ez dozue ezta amuentzako karnatik be.

—Lenago artzen genduen milloitxo bat edo bi, iru illebetz atezatzen dogun "Euskerazaintza" aldizkaria duban emoteko; baña, oraingo aldi onetan, lenago tantaka agertzen zan iturria, agortu egin da: itur-illa biurtu da.

—Ez arritu; askok uste dabe zuek Cofradía de la Morcilla edo Academia de la Alubia oietako bat zariela.

—Bai, paperetan irakurrita daukot beste a: Kakademia...

—Ez dakie zuek España eta Euskadi'ko Jaurlaritzetan Euskera-ren Akademi bat bezela onartuta zarienik, Euskera zaintzeko.

—Ori bakarrik ez; baita gizarte-maillan onurakorrak gariena be, onartuta daukagu.

—ETA orrek orrela dirala, zergaitik ez deusue laguntza geiagorik emoten?

—A...!



Soldaduzka "voluntario"

— Juantxu'k ez dau "insumisiorik" nai.

—Ez dakielako soldaduzka benetan zer dan...

—Baña, pentsatzen dau bere kasa "voluntario" joaten ba'da, bere abantaillak izango dauzala eta joan da Caja de Recluta'ra:

—~ Qué quiere usted?

—Entrar soldau nere kasa.

—A ver tú, Fermín, atiéndele a este jebo.

— Zer nai dozu?

—Soldaduzka Donostia'n egin.

— Infanteria, Zapadores'etan? Nun?

—Al ba'da, Estado Mayor'ean.

—Estado Mayor'ean? Baña, zertan?

—Al ba'da, Coronel.

—Zorotuta al zagoz?

—Zorotuta egon bear al da Coronel izateko, ala?



Eliza Santu katolikua...

(DEIA Martia, 9: 16(opinión).

— Gabriel Villalonga jaunak dionez, Euskalerriko aldizkari geienek, Eliza Katolikoari buruz ari diranean, beti alde-rantzia erakusten dabe.

—Zergaitik esaten dau alderantzia erakusten dabela?

— Elizak pakea sortzen dauala, egiturak zuzentzen lagundu, gizarte aldeko ekintza bat dala agertu... baña, ortik ez dira sekulan aurrerago pasatzen...

—Beste alkarte asko dagoz ori berori egiten saiatzen diranak!

— Ba, orretxegaitik... Geienez be,

Protestante kristiñau antza emoten deutse... Besterik ez.

— Beste gauza bat be ikusten dot nik?

— Zer?

—Egiak erdizka esaten dabezela Elizari buruzkoak. Egia bezela agertzen diran gezurrak, berri txarrak diranean, lenengo orrialdean argi eta garbi. Baña, gero ori gezurra izan dala, agertzen ba'da ixildu. Bigarren zatirik ez dizue ipiñiko.

—Ori, bai. Orixe gertatu zan Chicago'ko Joseph Bernardin Kardenal'agaz: sexokeriak egin ebazala mutiko bategaz...

—Berri ori guztiek ekarri eben, orriak bete.

Baña andik iru illebetara, SIDA'k jotako Steven Cook gazteak, dana gezurra zala agertu ebanean, orduan aldizkari guztiak, mutu: ez eben eurok aurrerago esandakorik zuzendu...

— Zuzendu ote du ABC'ek, Pagolari buruz esandako guzurra?

—Zer esan eban ba, aldizkari orrek?

—Pagola'k etarrei babes emon utsela. Baña, Donostia'ko 4 Auzitegiak agindu dio ABC'ri, esandako ori, zuzentzeko.

—Egin bearko dabe.

Pedro Pujana

(1-4-95)

— Aldizkariet diotenez Pedro Pujana, Euskalzain Oorezko egin dabe. Meritu gutxiagokin egingo eben bateren bat.

Bizkaitarra al dok?

— Ez, ba, bizkaitar aditza ondo menperatu arren eta orretan mai-xu ba'da be, ez dok bizkaitarra, arabarra baiño.

—Nun jaio zan?

—Otxandio inguruko Olaetan, ez Lekitto'ko Oletan, 1915'garren urtean. Gasteiz'ko Seminarioan ikaskizunak egin eta 1944'ean, apaiztu.

—Nik beti Bizkaian azagutu dot.

Berarekin batera Joan Coromines kataluñarra egin dabe euskalzin oorezko. Biak alkarrekin.

—Lanak nun argitu dauz?

— Toki eta leku askotan; baita ZER, EUSKERAZAINTZA eta KARDABERAZ'en be. Izen onek aitatu dabez.

—Asi dozak geu aintzakotzat artzen...?



Gabirel Jauregi

— Pujana Oorezk egiteko aitzakia Aita Gabirel Jauregi Uribarren'ek emon deutse.

— Zergaitik?

—Aita Gabirel arabarra zan, Aramaio'n jaioa: 1895-1945.

—Gazterik il zan.

—Bai, biotzekoak emonda, 50 amar urte betetzeko egoala.

— Eta, zer lan egin eban?

— Aita karmeldarra zan eta bere bizia euskeraz irakusten pasa eban eta bere ikastaroak euskeraz emoteko atera ebazan euskeraz Fisia eta Kimia. Oiek danak, gerra aurretik eta oraingoko laguntzarik gabe.


—Olan ba'da, merezi eban aipamen ori.

—Aramaio'ko udal-etxean egin deutse omenaldi ori. Bere lanak, batez be 1931'tik 1936'era KARMEL aldizkarian, besteak beste, atera ebazan.

—Bakoitzari berea / Jainko legea.




BARTOLO ARROPAINGO



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa